

## ESAGUZU EUSKARAZ, EMAGUZU MUXU



Bada altxor bat mundu osoan euskaldunok bakarrik duguna. Ez da ezkutuan dagoen horietakoa, lurpean edo uharte bakarti batean gorderik dagoena, ez da filmetakoa ere. Altxor hori egiazkoa da, eta gu denona, denok elkarrekin partekatze modukoa.

Partekatuz bakarrik hartzen du bere benetako balioa, gainera. Altxor hori ezpainetan dugu, beti prest, emateko eta jasotzeko, edo biak batera, akaso. Asmatu al duzu dagoeneko zer den? Bai?...

Bai! Muxua da, edo... Bai! Euskara da. Edo biak batera. Biak baitira partekatze. Biak ezpainetan, goxo, zugandik gugana eta gugandik zugana. Guk nahi dugu, eta prest gaude. Eta zuk, eman nahi al diguzu muxu? Egingo al diguzu euskaraz?

Hara! Gu ez gara lau katu, eta zure lagunak gara. Beste hizkuntzak maite ditugu, eta ezagutu nahi ditugu, eta erabiltzen ditugu, baina bizi, euskaraz egin nahi dugu, mundua koloretakoa atsegin dugulako, eta ez zuri-beltza. Munduari gure kolorea eman nahi diogu, euskararena, etxetik hasita, Euskal Herritik.

Koloretan amestu nahi dugu, koloretan esnatu, jolastu, ikasi, kantatu, dantzatu, barre eta negar egin. Euskaraz irakurri nahi ditugu egunkaria eta ipuinak, euskaraz ikusi nahi dugu antzerkia eta zinema. Euskaraz entzun nahi dugu irratia. Euskaraz egin nahi dugu gaixorik gaudenean medikuarekin, erosketak egitean saltzailearekin, postariarekin, kalegarbitzailearekin, udaltzainekin eta alkatearekin. Euskaraz, noski, zuekin, gurasoekin. Eta euskara entzun nahi dugu zuen artean, ikusten dugunetik ikasten dugulako. *Etzazue pentsa gu ikastolara eta eredu euskaldunetara bidalita nahikoa egin duzuenik. Zuekin ere euskaraz hitz egin nahi dugu guk, baina zeuek ere, medikuarekin, lankideekin, bankariekin, lagunekin eta zeuen artean euskaraz entzun nahi zaituztegu. Bestela, euskara, umeen gauza dela pentsatuko dugu, gure artekoa, eta gu, handitan, zeuek bezalakoak izan nahi dugu. Zuek bezalakoak, baina euskaldunak e!!! Asike, badakizue: orain zuen txanda da; lehenengo joan zaitetze euskaltegira eta gero, geuk lagunduko dizuegu etxerako lanak egiten!!!*

Baldin badakizu badakizu, erabili ezpainak. Eta ez badakizu, guk lagunduko dizugu. Animo eta ikasi! Maite zaitugulako, esaguzu euskaraz, emaguzu muxu.

Aupa zu! Eta aupaz gu! Bihotza, burua, eskuak! Sentitu, pentsatu, ekin! Denok elkarrekin! *Eta denok KORRIKA eta euskaraz! Gora Korrika eta Gora euskara!!!*

**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**